

IPARRALDEKO MENDIAK

BIZKAIA

B.15

Ordunte



Mendigune hau profil biribilduko hainbat goragunek osatzen dute. Tontorretako landare—estalkia deforestaturik dago neurri handi batean, historiaurreko garaietatik eremu honetan izan den eta paisaia sasiz eta larrez bete arte modelatu duen artzaintza estentsiboaren ondorioz. Ingurune hori nahiko aldatuta egon arren, oraindik ere badira pagadi- eta

amezti—eremu handi samarrak, antzinako garaietan gune hori estaltzen zutenen hondarrak. Gainera, helezinak diren zenbait enklabek fauna interesgarria gordetzen dute, gure autonomia—erkidegoan oso arraroak diren espezie batzuekin: erbinude zuria, lephoria eta orkatza. Inguru horietan sai arreek hegan egiten dute, eta Peñaltan elikatzen dira.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIAK

- Euskal Herriko geografia: kokapena, lurraldeen mugak, Enkartriak.
- Karrantzako paisaia: sakabanatutako guneak (auzoak), larrea, basoa, harkaitzak.
- Sarraskijale handiak: putreen kolonien haztegiak.
- Gizakiaren jarduerak modelatutako paisaia. Abeltzaintza estentsiboa.
- Antzinatek jasangarria den abeltzaintza: behi montxina, Karrantzako ardia eta zakur bilaua. Euskal Herriko etxe—abereen arraza autoktonoak. Kontserbatzeko dituzten arriskuak eta leheneratzeko estrategiak.
- Korridore biologikoak: kontzeptua, Orduntek korridore biologiko gisa duen garrantzia.
- Landa—inguruneke bizimodua: landa—guneen oraina eta etorkizuna.